

Autokontzeptuaren domeinuen garrantzia autokontzeptu orokorrean*

(The importance of self-concept domains in general self-concept)

Esnaola Etxaniz, Igor¹; Rodríguez Fernández, Arantzasu²; Goñi Palacios, Eider³; Infante Bolinaga, Guillermo⁴
Univ. de País Vasco/Euskal Herriko Unib. Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Tolosa Hiribidea, 70. 20018 Donostia
igor.esnaola@ehu.es¹; arantzasu.rodruiguez@ehu.es²;
eider.goni@ehu.es³; guillermo.infante@ehu.es⁴

BIBLID [1137-442X (2011), 14; 33-47]

Jaso: 2007.05.02
Onartu: 2010.03.01

Ikerketa honen helburuak, autokontzeptuaren domeinu ezberdinak autokontzeptu orokorrean duten garrantzia eta domeinu fisikoaren barnean, azpidomeinu bakoitzak autokontzeptu fisikoan eta autokontzeptu orokorrean duten garrantzia aztertzea izan dira. Lagina 495 subjektuz osatua dago hiru adin tartetan banaturik: nerabeak, gazteak eta helduak. Autokontzeptu fisikoa eta autokontzeptu orokorraren aureslerik onena eta biekin altuen korrelazionatzen duen azpidomeinua erakargarritasun fisikoa izan da.

Giltza-Hitzak: Autokontzeptua. Autoestima. Nerabezaroa. Gaztaroa. Helduaroa.

Los objetivos de la investigación han sido analizar la importancia de los distintos dominios del autoconcepto en el autoconcepto general y, dentro del dominio físico, la importancia que cada subdominio tiene en el autoconcepto físico y en el autoconcepto general. La muestra se compone de 495 sujetos divididos en tres tramos de edad: adolescentes, jóvenes y adultos. El mejor predictor del autoconcepto físico y del autoconcepto general y el subdominio que presenta una mayor correlación con ambos ha sido la atracción física.

Palabras Clave: Autoconcepto. Autoestima. Adolescencia. Juventud. Madurez.

Le travail de recherche analyse l'importance dans les différents domaines du concept de soi dans le concept de soi général et, dans le domaine physique, l'importance de chaque sous-domaine dans le concept de soi physique et le concept de soi général. L'échantillon se compose de 495 sujets répartis en trois groupes d'âge : adolescents, jeunes et adultes. Le meilleur indicateur du concept de soi physique et du concept de soi général et le sous-domaine présentant une plus forte corrélation avec les deux est l'attraction physique.

Mots-Clés : Concept de soi. Estime de soi. Adolescence. Jeunesse. Maturité.

* Lan honek Eusko Ikaskuntzaren 2006 urteko ikerketarako laguntza jaso du.

1. SARRERA

Autokontzeptua ongi zate eta heldutasun pertsonalarekin erlazioa duen ezaugarri psikologikorik garrantzitsuenetakoa da. Autokontzeptua (bakoitzak bere burua definitu edo deskribatzeko erabiltzen dituen ezaugarriak) edo autoestimaren (ezaugarri horien balorazioa, autokontzeptuaren dimentsio ebaluatiboa hain zuzen) determinatzaileen ikasketa, ikerkuntza psikologikoaren erroto garrantzitsu bat bihurtu da azkeneko urteetan. Autoestima edo autokontzeptu positibo bat edukitzeak bizitzan aurre egin behar ditugun egoera edo erroto desberdinei konfidantzaz jokatzeko aukera emango digu. Gaur egun autokontzeptu fisikoari eta bere azpidomeinua den erakargarritasun fisikoari ematen zaion garrantzia gehiegizkoa da. Ikerketa honetan, autokontzeptu fisikoak autokontzeptu orokorrean duen garrantzia aztertuko dugu, autokontzeptu fisikoaren barnean azpidomeinu bakoitzak domeinu orokorrean duen eragina aztertuko dugun bezelaxe.

Gaur egungo gizartean itxura fisikoa oso baloratua dago (gorputzarekiko kultuaren gizartea ere deitzen zaiolarik), baina balorazio honi ematen zaion garrantzia adinarekin aldatzen da; nerabezeroan adibidez oso handia da. Subjektuak bere estetika eta gaitasun motoreen zentzu oso handia dauka. Adin hauetan nerabeek ustez duten akats fisikoek konplexu asko erakartzen dituzte. Goitzen gehiengoak ezaugarri edo akats fisikoak (nahiz eta normaltasun baten barnean egon) irigarri utzi eta karikatuzatzen dituzte, subjektuei min eginez; adin honetan itxura fisikoarekiko sentsibilitate berezia baidago (Burns, 1990).

Ikerketa desberdinek autokontzeptuaren domeinu bakoitzaren garrantzia aztertu dute. Haurtzaroan, Self-Perception Profile for Children galdesortarekin egindako ikerketa batean (8-11 urteko haurrekin) autokontzeptu orokorraren aureslerik nagusia *itxura fisikoa* izan zela aurkitu zen, bai 8 bai 11 urterekin (Granleese eta Joseph, 1994). Bigarren aureslerik onena, 8 urterekin *onarpen soziala* eta 11 urterekin *gaitasun eskolarra* izan ziren. Galdesorta berdinarekin, laugarrenetik seigarren mailarako haurrekin, autokontzeptu orokorraren aureslerik onena *itxura fisikoa* zela aurkitu zen, bai mutiletan zein nesketan (Van den Bergh eta Marcoen, 1999).

Newcomb eta Bukowskik (1983) nerabeentzat aspektu fisikoek hartzen duten garrantzia azpimarratzen dute. Autore hauek beraien lagunak aukeratzeko orduan haurrak eta nerabeak baloratzen dituzten aspektuak aztertu zituzten. Emaitzek zioten, haurrak nerabezeroan iristen zioazen heinean, *itxura fisikoa* eta *kirol trebetasunak*, *trebetasun akademikoak* baino gehiago baloratzen dituztela lagunak aukeratzeko orduan. Self-Perception Profile for Adolescents (SPPA) galdesortak dituen domeinu guztietatik, *itxura fisikoak* nerabeen autokontzeptuari ekarpen gehien ematen diona dela ikerketa askotan azaldu da (Harter, 1987, 1988, 1989). Hain da handia autore batzuk *itxura fisikoari* ematen dioten garrantzia, Harter-ek "self publikoa" deitu ziola (Harter, 1990). Pastor-en (1998) ikerketa batean, *autobalorazioak* beste azpieskalekin modu positibo eta esanguratsuan korrelazionatu zuen, baina korrelazio altuena *itxura fisikoarekin* eman zen, eta bigarrena *onarpen sozialarekin* bai mutiletan zein nesketan. Atienza, Balaguer eta Morenok (1998), 11-15 urte bitarteko nerabe valentziarrekin, autoestiman eragin handienak dituzten domeinuak *itxura fisikoa*, *jokabidearen pertzepzioa* eta *onarpen soziala* izan zirela aurkitu zuten. Bestalde, Pastor, Balaguer eta

Benavides-ek (2002) emaitza berdinak aurkitu zituzten Valentziako nerabeengan (15-18 urte); autoestimarengan modu esanguratsuan eragiten zuten faktoreak, *itxura fisikoa*, *onarpen soziala*, *jokabidearen pertzepzioa* eta *gaitasun akademikoak* izan ziren. Bai mutil zein nesketan autoestimaren bariantzarik handiena esplikatzen zuen azpidomeinua *itxura fisikoa* izan zen. Neska australianoen artean (13 urtetakoak), autokontzeptuaren domeinu guztiak autoestimarekin positiboki eta esanguratsuki erlasionaturik aurkitu ziren, *itxura fisikoa*, *onarpen soziala* eta *jokabidearen pertzepzioa* izan zirelarik korrelazio altuenak erakutsi zituztenak (Trent, Rusell eta Cooney, 1994). Hagborg-ek (1993) galdesorta berdina erabiliz, *gaitasun eskolarra* eta *itxura fisikoa autokontzeptu orokorrekina* modu esanguratsuan korrelazionatzen zutela aurkitu zuen bi sexuetan.

Autokontzeptu fisikoaren azpidomeinu bakoitzaren ekarpenei buruz, garrantzitsua da aipatzea nahiz eta *trebetasun fisikoak* autokontzeptuan garrantzia izan, *itxura fisikoa autokontzeptu fisikoa* menperatu eta *autokontzeptu orokorrekina* erlazio leiala duela (Moreno, 1997). Klomsten, Skaalvik eta Espnes-ek (2004) ere *itxura fisikoa* autoestima gehien aurrezaten zuen azpidomeinua zela aurkitu zuten.

Unibertsitarioekin, Fox eta Corbin (1989) zein Hayes, Crocker eta Kowalski-k (1999) bi sexuetan *itxura fisikoa autokontzeptu fisiko orokor* eta *autokontzeptu orokorrekina* gehien korrelazionatzen zuen azpidomeinua zela aurkitu zuten. Asci, Asci eta Zorba-k (1999) Physical Self-Perception Profile-aren (PSPP) balio-tasunean, turkiar unibertsitarioekin (adinaren media 20 urte) *autokontzeptu fisikoarekin* gehien korrelazionatzen zuen azpidomeinua emakumezkoetan *itxura fisikoa* eta gizonetzkoetan *indarra* zela aurkitu zuten.

Helduei dagokionez, Sonstroem, Speliotis eta Fava-k (1992) 31 eta 66 urte arteko (media 44 urte) subjektuekin, baita Marsh eta Sonstroem-ek (1995) aerobik-a praktikatzen zuten emakume helduekin (urteen media 38.4), *autokontzeptu fisiko orokorrekina* gehien korrelazionatzen zuen azpidomeinua *erakargarritasun fisikoa* zela aurkitu zuten.

Hausnarketa guzti hauen alderdirik garrantzitsuena zera da, *itxura fisikoa* pertsonarentzat alderdi oso garrantzitsua dela, batez ere emakumeentzat, giza-kientzat beharrezkoak diren oinarrizko beharrak (afektua eta maitasuna jasotzea) asetzeko oso beharrezkoa ikusten dutelako. Horrexegatik ulertzen da gizakiak itxura fisiko ona edukitzeko erabiltzen dituen tresna guztiak (gimnasioetara joan, estetikako zentruak, etab.). Gainera aktibitate guzti hauek gaur egungo gizarteak bultzatuak dira, itxura fisikoari ematen zaion gehiegizko garrantziaren ondorioz.

Laburbilduz, orain arte egindako ikerketek *autokontzeptu fisikoak autokontzeptu orokorrean* duen garrantzia azpimarratu dute. Hala ere, ikerketa gehienak, nerabezaroan edo gaztaroan zentratu dira; honenbestez, interesgarria iruditzen zaigu, autokontzeptuaren domeinu desberdinak edo autokontzeptu fisikoaren azpidomeinu bakoitzak autokontzeptu orokorrekina duen erlazioa aztertzea bizitzako etapa desberdinetan (nerabezaroan, gaztaroan eta helduarroan), adinaren arabera alderdi bakoitzari ematen zaion garrantzia aldatzen den aztertzeko. Hau izango litzateke ikerketa honen aportaziorik berriena, helduen lagina erabiltzea eta beste adin tarteekin batera konparatzeko aukera edukitzea.

2. METODOA

2.1. Partehartzaileak

Ikerketa honetako lagina 495 subjektuz (267 emakumezko eta 228 gizonezko) osatua dago hiru adin tarteetan banaturik: nerabeak (12-18 urte), gazteak (19-30 urte) eta helduak (31-49 urte). Laginaren distribuzioa lehenengo taulan ikusi daiteke.

1. Taula. Laginaren banaketa

		Nerabeak	Gazteak	Helduak
N		196 (%39.6)	172 (%34.7)	6,35 mm (%25.7)
Adina	Rangoa	12.1-19.5	19.5-29.7	31.3-49.7
	Batazbestekoa	15.33	22.50	39.88
	d.t.	1.78	2.40	3.75
Sexua	Emakumea	105 (%21.3)	94 (%18.9)	68 (%13.7)
	Gizona	91 (%18.4)	78 (%15.8)	59 (%11.9)

2.2. Galdesortak

Ikerketa honetan bi galdesorta aplikatu dira:

- AF5 (*Autoconcepto Forma 5*, García eta Musitu, 2001): Autokontzeptua neurtzeko Espainian dagoen galdesorta ezagun eta erabilitakoa da, 5 eskalaz osatua dagoelarik (6 item eskala bakoitzeko): *autokontzeptu akademiko/laborala* (1, 6, 11, 16, 21 eta 26. itemak), *autokontzeptu soziala* (2, 7, 12, 17, 22 eta 27. itemak), *autokontzeptu emozionala* (3, 8, 13, 18, 23 eta 28. itemak), *autokontzeptu familiarra* (4, 9, 14, 19, 24 eta 29. itemak) eta *autokontzeptu fisikoa* (5, 10, 15, 20, 25 eta 30. itemak). Item bakoitzari 1-99 baloreen tarteko eskala batean erantzun behar zaio, itemarekiko adostasun maila ezarriz, 1 = “oso desados” eta 99 = “oso ados” esanahi duelarik noski; gero eta puntuazio altuagoa jarri itemarekin adostasun handiagoa adierazten delarik. Galdesortaren fida-garritasunaren indizea, barne trinkotasuna Cronbach-en alpha-ren bidez neurtu da, oso indize egokiak lortu direlarik. Puntuazioak, emakumezkoen *autokontzeptu sozialaren* $\alpha = .71$ eta gizonezkoen *autokontzeptu akademiko/laboralaren* $\alpha = .89$ tartean kokatzen dira. Galdesortaren fiabilitate orokorra ere egokia izan da, $\alpha = .72$ emakumezkoen laginean eta $\alpha = .75$ gizonezkoen laginean. Hurrengo taulan AF5 galdesortaren item batzuen adibideak aurkezten dira.

2. Taula. AF5 galdesortaren adibideak

1.	Eskolako lanak (lan profesionalak) ondo egiten ditut (AAL)		
2.	Lagunak erraz egiten ditut (AS)		
3.	Gauza batzuekiko beldurra dut (AE)		
4.	Etxean oso kritikatu naiz (AFA)		
5.	Fisikoki zaintzen naiz (AF)		

Leienda. AAL: Autokontzeptu akademiko/laborala; AS: Autokontzeptu soziala; AE: Autokontzeptu emozionala; AFA: Autokontzeptu familiarra ; AF: Autokontzeptu fisikoa.

- AFI (*Autokontzeptu Fisikoaren Itaunketa*, Esnaola, 2005): Autokontzeptu fisikoa euskeraz neurtzeko baliagarria den galdesorta berri bat da. AFI-ak 30 item eta 6 eskala ditu (eskala bakoitzeko 5 item): *trebetasun fisikoa* (1, 7, 13, 19 eta 25. itemak), *sasoi fisikoa* (2, 8, 14, 20 eta 26. itemak), *erakargarritasun fisikoa* (3, 9, 15, 21 eta 27. itemak), *indarra* (4, 10, 16, 22 eta 28. itemak), *autokontzeptu fisiko orokorra* (5, 11, 17, 23 eta 29. itemak), eta *autokontzeptu orokorra* (6, 12, 18, 24 eta 30. itemak). Galdesortaren fidagarritasunaren indizea, barne trinkotasuna Cronbach-en alpha-ren bidez neurtu da, oso indize egokiak lortuz. Puntuazioak, gizonetzkoen *autokontzeptu fisiko orokorraren* $\alpha = .73$ eta gizonetzkoen *indarraren* $\alpha = .83$ tartean kokatzen direlarik. Galdesortaren fiabilitate orokorra ere egokia izan da, $\alpha = .80$ emakumezkoen laginean eta $\alpha = .81$ gizonetzkoen laginean. Hurrengo taulan AFI galdesortaren item batzuen adibideak aurkezten dira.

3. Taula. AFI galdesortaren adibideak

		Gezurra	Gehienetan gezurra	Noiz behinka	Gehienetan egia	Egia
1	Kiroletarako gaitasun onak ditut (TF)					
2	Ariketa fisiko gogorretarako erresistentzia ona dut (SF)					
3	Neure itxura fisikoarekin gustora nago (EF)					
4	Indartsua naiz (I)					
5	Orokorrean, fisikoki ondo sentitzen naiz (AFO)					
6	Zoriontsu sentitzen naiz (AO)					

Leienda. TF: Trebetasun fisikoa; SF: Sasoi fisikoa; EF: Erakargarritasun fisikoa; I: Indarra; AFO: Autokontzeptu fisiko orokorra; AO: Autokontzeptu orokorra.

2.3. Prozedura

Galdesortak modu kolektiboan aplikatu ziren ikerketa taldeko kideengatik, zentru edo taldeekin hitzegin eta beraien kolaborazioa eskatu ondoren. Galdesortak bete aurretik emaitzen konfidentziasuna eta ikerketan parte hartzea borondatezkoa zela azpimarratu zen, galdesortak nola bete behar ziren azalduz. Partehartzaileek ikerketaren helburua ez zuten ezagutzen (ciego único) gezurrezko erantzunak ekiditzeko eta desira sozialaren efektua murrizteko. Galdesortak jasotzerako orduan egoki beteta zeudela begiratu zen.

Zeharkako diseinu duen ikerketa honetan analisi estatistikoak Windows-erako SPSS 11.5 programa informatikoaren bitartez egin dira. Autokontzeptu espezifiko eta autokontzeptu fisikoaren azpidomeinu bakoitzak autokontzeptu orokorrari egiten dion ekarpena aztertzeko asmoz Pearsonen korrelazio froga eta erregresio lineala erabiliko dira.

3. EMAITZAK

Lehenik eta behin, Pearsonen korrelazioen emaitzak laugarren taulan aurkezten dira. Aurreko ikerketak (Amezcueta eta Pichardo, 2000; Esnaola, 2009; Gabelko, 1997; García eta Musitu, 2001; Hagger, Biddle eta Wang, 2005; Klomsten, Skaalvik eta Espnes, 2004; Young eta Mroczek, 2003) autokontzeptuan sexuen arteko desberdintasunak esanguratsua izan ohi direla azaltzen dutenez, emaitzak modu independientean aurkeztuko dira sexu bakoitzerako. Gainera, honela sexu bakoitzak autokontzeptuaren zein domeinuari ematen dion garrantzi handiena ikusi daiteke.

Taulan ikusi daitekeenez, AF5 galdesortari dagokionez nerabezaroan domeinu guztiak autokontzeptu orokorrarekin esanguratsuki korrelazionatzen dute. Domeinu desberdinetatik, bai nesketan ($r = .370$, $p = .001$) zein mutiletan ($r = .385$, $p = .001$) *autokontzeptu orokorrarekin* altuen korrelazionatzen duena *autokontzeptu fisikoa* da. AFI galdesortaren *autokontzeptu fisiko orokorrak* ere esanguratsuki korrelazionatzen du *autokontzeptu orokorrarekin*, eta alderdi fisikoaren azpidomeinuak aztertuz *autokontzeptu orokorrarekin* altuen korrelazionatzen duena *erakargarritasun fisikoa* da, nesketan ($r = .631$, $p = .001$) zein mutiletan ($r = .523$, $p = .001$).

Gazteen laginari begiratu, AF5 galdesortari dagokionez hemen ere domeinu guztiak autokontzeptu orokorrarekin esanguratsuki korrelazionatzen dute. Domeinu desberdinetatik, nesketan ($r = .464$, $p = .001$) *autokontzeptu orokorrarekin* altuen korrelazionatzen duena *autokontzeptu soziala* da. Mutiletan ere ($r = .457$, $p = .001$) *autokontzeptu soziala* oso garrantzitsua da, baina *autokontzeptu familiarak* ($r = .463$, $p = .001$) pixkat altuagoa korrelazionatzen du. AFI galdesortaren *autokontzeptu fisiko orokorrak* ere esanguratsuki korrelazionatzen du *autokontzeptu orokorrarekin*, eta alderdi fisikoaren azpidomeinuak aztertuz autokontzeptu orokorrarekin altuen korrelazionatzen duena *erakargarritasun fisikoa* da, nesketan ($r = .661$, $p = .001$) zein mutiletan ($r = .705$, $p = .001$).

4. Taula. Pearsonen korrelazioak

Testa	Eskalak		Autokontzeptu Orokorra					
			Nerabeak		Gazteak		Helduak	
			Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
AF5	Autokontzeptu familiarra	Korrelazioa	.362**	.334**	.321**	.463**	.289**	.299**
		Esang.	.001	.001	.001	.001	.001	.004
	Autokontzeptu soziala	Korrelazioa	.213**	.289**	.464**	.457**	.368**	.321**
		Esang.	.001	.001	.001	.001	.001	.002
	Autokontzeptu emozionala	Korrelazioa	-.255**	-.159*	-.388**	-.513*	-.202*	-.335**
		Esang.	.001	.001	.001	.001	.013	.001
	Autokontzeptu akademiko/laborala	Korrelazioa	.267**	.169**	.366**	.409**	.327**	.325**
		Esang.	.001	.009	.001	.001	.001	.005
	Autokontzeptu fisikoa	Korrelazioa	.370**	.385**	.422**	.437**	.380**	.287**
		Esang.	.001	.001	.001	.001	.001	.001
AFI	Trebetasun fisikoa	Korrelazioa	.263**	.342**	.349**	.284**	.155	.105
		Esang.	.001	.001	.001	.002	.058	.310
	Sasoi fisikoa	Korrelazioa	.234**	.251**	.306**	.313**	.252**	.091
		Esang.	.001	.001	.001	.001	.002	.377
	Erakargarritasuna	Korrelazioa	.631**	.523**	.661**	.705**	.622**	.646**
		Esang.	.001	.001	.001	.001	.001	.001
	Indarra	Korrelazioa	.168**	.178**	.222**	.197*	.291**	.324**
		Esang.	.002	.002	.006	.197*	.002	.001
	Autokontzeptu fisiko orokorra	Korrelazioa	.651**	.580**	.720**	.712**	.649**	.624**
		Esang.	.001	.001	.001	.001	.001	.001

Esrnola, I.; [et al.]: Autokontzeptuaren domeinuen garrantzia autokontzeptu orokorrean

5. Taula. Erregresio lineala autokontzeptu fisiko eta azpidomeinuen artean

Adina	Domeinua	Azpidomeinuak	B		t		Esanguratasuna	
			Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Nerabeak	Autokontzeptu fisikoa	Trebetasun fisikoa	.041	.032	.976	.687	.330	.492
		Sasoi fisikoa	.118	.248	2.899	6.184	.004**	.001***
		Erakargarritasuna	.820	.738	32.543	21.863	.001***	.001***
		Indarra	.055	.032	1.723	1.046	.086	.297
Gazteak	Autokontzeptu fisikoa	Trebetasun fisikoa	.027	-.009	.500	-.189	.618	.850
		Sasoi fisikoa	.173	.214	3.492	5.309	.001***	.001***
		Erakargarritasuna	.813	.801	20.297	17.888	.001***	.001***
		Indarra	.002	-.014	.049	-.372	.961	.710
Helduak	Autokontzeptu fisikoa	Trebetasun fisikoa	-.057	.085	-1.165	1.456	.246	.149
		Sasoi fisikoa	.283	.085	4.559	1.531	.001***	.129
		Erakargarritasuna	.766	.560	18.382	10.735	.001***	.001***
		Indarra	.020	.040	.437	.859	.662	.393

6. Taula. Erregresio lineala autokontzeptu orokor eta autokontzeptu fisikoaren azpidomeinuen artean

Adina	Domeinua	Azpidomeinuak	B		t		Esanguratasuna	
			Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Nerabeak	Autokontzeptu orokorra	Trebetasun fisikoa	.083	.149	1.511	2.714	.132	.007**
		Sasoi fisikoa	-.069	-.065	-.285	-1.374	.200	.170
		Erakargarritasuna	.448	.341	13.554	8.518	.001***	.001***
		Indarra	.078	.008	1.859	.232	.064	.817
Gazteak	Autokontzeptu orokorra	Trebetasun fisikoa	.018	-.053	.239	-.696	.812	.488
		Sasoi fisikoa	.057	.034	.819	.552	.414	.582
		Erakargarritasuna	.517	.645	9.111	9.308	.001***	.001***
		Indarra	.024	.045	.402	.793	.688	.429
Helduak	Autokontzeptu orokorra	Trebetasun fisikoa	-.116	-.017	-1.730	-.223	.086	.824
		Sasoi fisikoa	.102	-.148	1.205	-1.990	.230	.050*
		Erakargarritasuna	.491	.572	8.634	8.162	.001***	.001***
		Indarra	.085	.175	1.332	2.797	.185	.006**

7. Taula. Erregresio lineala autokontzeptu orokor eta domeinu desberdinen artean

Adina	Domeinua	Domeinuak	B		t		Esanguratasuna	
			Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Nerabeak	Autokontzeptu orokorra	Autokontzeptu familiarra	.675	.523	4.853	4.370	.001***	.001***
		Autokontzeptu soziala	.205	.228	1.185	1.596	.237	.112
		Autokontzeptu emozionala	.342	.149	2.839	1.317	.005**	.189
		Autokontzeptu akademiko/laborala	.201	-.003	1.589	-.030	.113	.976
		Autokontzeptu fisikoa	.541	.506	4.245	4.487	.001***	.001***
Gazteak	Autokontzeptu orokorra	Autokontzeptu familiarra	.609	.784	2.858	2.906	.005**	.005**
		Autokontzeptu soziala	.694	.488	3.243	1.841	.002**	.069
		Autokontzeptu emozionala	-.345	-.687	-2.270	-3.895	.025*	.001***
		Autokontzeptu akademiko/laborala	.407	.209	2.063	.866	.041*	.389
		Autokontzeptu fisikoa	.430	.341	2.240	1.517	.027*	.133
Helduak	Autokontzeptu orokorra	Autokontzeptu familiarra	.553	.352	2.436	.999	.016*	.321
		Autokontzeptu soziala	.417	.310	2.031	1.211	.044*	.229
		Autokontzeptu emozionala	.301	.440	1.870	1.986	.063	.050*
		Autokontzeptu akademiko/laborala	.324	.546	1.186	1.610	.238	.111
		Autokontzeptu fisikoa	.705	.414	3.957	1.870	.001***	.065

Azkenik, helduen laginean, AF5 galdesortari dagokionez domeinu guztiak autokontzeptu orokorrearekin esanguratsuki korrelazionatzen dute. Domeinu desberdinetatik, *autokontzeptu orokorrearekin* altuen korrelazionatzen duena *autokontzeptu fisikoa* da nesketan ($r = .380, p = .001$) eta mutiletan ($r = .325, p = .005$) *autokontzeptu laborala* da. AFI galdesortaren *autokontzeptu fisiko orokorrak* ere esanguratsuki korrelazionatzen du *autokontzeptu orokorrearekin*, eta alderdi fisikoaren azpidomeinuak aztertuz autokontzeptu orokorrearekin altuen korrelazionatzen duena *erakargarritasun fisikoa* da, nesketan ($r = .622, p = .001$) zein mutiletan ($r = .646, p = .001$).

Autokontzeptuaren domeinu eta azpidomeinu bakoitzaren garrantzia aztertzeko beste analisi bat ere burutu dugu, hau da, erregreso lineala. Froga honen bitartez, autokontzeptu fisikoaren azpidomeinu bakoitzak, *autokontzeptu fisiko orokor* eta *autokontzeptu orokorrean* duen garrantzia aztertuko dugu alde batetik. Eta bestetik, autokontzeptuaren domeinu bakoitzak (*soziala, emozionala, familiarra*, etab.) autokontzeptu orokorrean duen garrantzia. Lehenik eta behin, 5. taulan *autokontzeptu fisiko orokor* eta azpidomeinu espezifikoen arteko erlazioak aurkezten dira. Taulan ikusi daitekeenez, *autokontzeptu fisikoaren* aureslerik onena *erakargarritasuna* da hiru adin tartetan eta bi sexuetan.

Seigarren taulan, autokontzeptu fisikoaren azpidomeinuak, autokontzeptu orokorrearekin duten erlazioa aztertu da. Ikusi daitekeenez, aurreko kasuaren antzera, *autokontzeptu orokorraren* aureslerik onena *erakargarritasun fisikoa* da, hiru adin tarte eta bi sexuetan.

7. taulan ikusi daitekeen moduan, nerabeen kasuan *autokontzeptu orokorraren* aureslerik onena *autokontzeptu familiarra* da bi sexuetan, nesketan ($B = .675, p = .001$) eta gizonetan ($B = .523, p = .001$). *Autokontzeptu fisikoa* autokontzeptu familiarretik oso gertu eta *autokontzeptu orokorrari* asko aporteratzen diola esan behar da, nesketan ($B = .541, p = .001$) eta mutiletan ($B = .506, p = .001$). Gazteen laginean, emakumeen kasuan *autokontzeptu soziala* da *autokontzeptu orokorraren* aureslerik onena ($B = .694, p = .002$) eta mutilen kasuan *autokontzeptu familiarra* ($B = .784, p = .005$). Azkenik, helduen kasuan autokontzeptu orokorraren aureslerik garrantzitsuena *autokontzeptu fisikoa* da emakumeetan ($B = .705, p = .001$) eta gizonezkoetan berriz *autokontzeptu laborala* ($B = .546, p = .111$).

4. EZTABAIDA

Ikerketa honen helburua, alde batetik, autokontzeptuaren domeinu ezberdinak (familiarra, soziala, emozionala, akademiko/laborala eta fisikoa) autokontzeptu orokorrean duten garrantzia aztertzea izan da. Bestalde, domeinu fisikoaren barnean, azpidomeinu bakoitzak (trebetasun fisikoa, sasoi fisikoa, erakargarritasuna eta indarra) autokontzeptu fisikoan eta autokontzeptu orokorrean duten garrantzia ere aztertu da.

Ikerketa honetan azaldutako emaitzak aurreko ikerketekin hein handi batean bat datozela esan daiteke. Nerabeen kasuan, Pearsonen korrelazioak kontutan

hartuta, *autokontzeptu orokorrarekin* altuen korrelazionatzen duen domeinua *autokontzeptu fisikoa* izan da bi sexuetan, eta alderdi fisikoaren azpidomeinuak kontutan hartuz gero *erakargarritasun fisikoa* edo itxura fisikoa deritzona izan da. Datu hauek aurreko ikerketekin (Atienza, et al., 1998; Hagborg, 1993; Harter, 1987, 1988, 1989; Klomsten et al., 2004; Moreno, 1997; Newcomb eta Bukowskik, 1983; Pastor, 1998; Pastor et al., 2002; Trent et al., 1994) bat datoz. Erregresio lineala aztertuz, alderdi fisikoaren azpidomeinuak aztertzerakoan, *erakargarritasun fisikoa* izan da *autokontzeptu fisiko* eta *autokontzeptu orokorraren* aureslerik garrantzitsuena bi sexuetan. AF5 galde-sortaren dimentsio edo domeinu desberdinak kontutan hartuta, bai mutil zein nesketan *autokontzeptu familiarra* izan da *autokontzeptu orokorraren* aureslerik garrantzitsuena, nahiz eta *autokontzeptu fisikoa* ere auresle esanguratsu bat izan. Datu hauek demostratzen dute, alde batetik nerabeentzat alderdi fisikoak edo itxura fisikoak duen garrantzia; eta bestetik, nahiz eta nerabezaroen seme-alaba eta gurasoen arteko erlazioak momentu aldakor edo ezegonkor batetik pasatzen egon, nerabeentzat familia oso testuinguru garrantzitsua izaten jarraitzen duela beraien autokontzeptu edo egonkortasun psikologikoa bermatzeko.

Gazteen laginean zentratuz, Pearsonen analisisiek diote *autokontzeptu orokorrarekin* altuen korrelazionatzen duen domeinua nesketan *autokontzeptu soziala* dela, eta mutiletan *autokontzeptu familiarra*, nahiz eta *autokontzeptu soziala* oso gertu egon. Adin honetan *autokontzeptu fisikoak* ere esanguratsuki korrelazionatu du *autokontzeptu orokorrarekin*. Alderdi fisikoa kontutan hartuta, autokontzeptu orokorrarekin altuen korrelazionatu duen azpidomeinua *erakargarritasun fisikoa* izan da bi sexuetan. Erregresio linealari begiratzuz, alderdi fisikoaren lau azpidomeinuetatik *erakargarritasun fisikoa izan da*, *autokontzeptu fisikoa* eta *autokontzeptu orokorra* aureslaren dituen azpidomeinurik garrantzitsuena, bai nesketan zein mutiletan, datu hauek aurreko ikerketek aurkitutakoarekin bat datozelarik (Fox eta Corbin, 1989; Hayes et al., 1999). AF5 galdesortaren domeinuak kontutan hartuta, *autokontzeptu orokorraren* aureslerik garrantzitsuena *autokontzeptu soziala* nesketan eta *autokontzeptu familiarra* izan da mutiletan. Datu hauen arabera, *erakargarritasun fisikoaren* garrantziaz aparte, gazteetan erlazio sozialak eta familiarren garrantzia azpimarratzen dute.

Ikerketa honetan aztertutako azkeneko adin tartea helduena izan da. Pearsonen analisiak begiratzuz zera ikusi daiteke, domeinu desberdinetatik, *autokontzeptu orokorrarekin* altuen korrelazionatzen duena *autokontzeptu fisikoa* dela nesketan, eta mutiletan *autokontzeptu laborala*. Alderdi fisikoa kontutan hartuta *autokontzeptu orokorrarekin* altuen korrelazionatzen duen azpidomeinua *erakargarritasun fisikoa* da, bai nesketan zein mutiletan. Erregresio linealari begiratzuz, alderdi fisikoaren azpidomeinuen artean *erakargarritasun fisikoa* da *autokontzeptu fisiko* eta *autokontzeptu orokorraren* aureslerik onena bi sexuentzako nerabezaro eta gaztaroan gertatzen zen moduan, datu hauek aurreko ikerketekin bat datozelarik (Marsh eta Sonstroem, 1995; Sonstroem et al., 1992). AF5 galdesortari atxikituz, *autokontzeptu orokorraren* aureslerik garrantzitsuenak *autokontzeptu fisikoa* izan da nesketan eta *autokontzeptu laborala* mutiletan, datu hauek espero zitekeenarekin bat etorri direlarik, helduaroan mundu laborala edo garapen profesionala oso garrantzitsua bihurtzen baita.

Laburbilduz, ikerketa honetan aztertutako datuek zera aipatzen dute. Aztertutako alderdi fisikoaren azpidomeinuak kontutan hartuta (*trebetasun fisikoa, sasoi fisikoa, erakargarritasuna* eta *indarra*), *autokontzeptu fisikoa* eta *autokontzeptu orokorraren* aureslerik onena eta altuen korrelazionatzen duen azpidomeinua *erakargarritasun fisikoa* izan dela hiru adin tartetan (nerabezar-roan, gaztaroan eta helduaroan) eta bi sexuetan (emakume eta gizonezkoetan). Datu hauek, gaur egun gure gizarteak itxura fisikoari ematen dion garrantziaren islada dira dudarik gabe eta gure ustez garrantzi hori gehiegizkoa da. Benetan sakonki ausnartzeko gaia dela iruditzen zaigu, gizarteak gaur egun baloratu eta bultzatzen dituen baloreak zeintzuk diren aztertzeko beharra egonez. Gure ustez, gizarteak eskeintzen dituen emakume eta gizonezko idealaren eruedetatik aldentzen diren eredu errealistagoak eraiki beharko liritezke. Bai emakume zein gizonezkoak gaur egungo egoera aldatu beharra dagoela eta eredu errealistagoekin konparatu beharra dagoela konturatu behar gara, gure autokontzeptua maila egokian mantendu nahi badugu behintzat. Autokontzeptu egoki eta orekatu bat mantentzea gure osasun edo oreka emozionalean positiboki eragingo duelarik. Psikologikoki osasungarriena, autokontzeptu eta autoestima oinarritzeko kriterio edo erreferentziatzko baloreak aldatzea izango litzateke; itxura fisikoa erabili beharrean (pertsonaren kanpoko alderdi superfiziala bakarrik adierazten duena), pertsonaren ezaugarri psikologiko eta gizatasunari garrantzi handiagoa emanez. Eta emaitzek garrantzi hori nerabezarotik gertatzen dela (aurretik ematen ez bada) erakutsi dutenez, hezkuntza munduan lan askotxo dagoela erakusten digu. Beraz, hezkuntza eskuhartze programak diseinatzeko aukera edo beharra erakusten dute, beti ere haurren autokontzeptu erreal, positibo eta osasuntsu bat bultzateko helburuarekin, horrek bizitzan zoriontsu izateko aukerak handituko dituelarik.

5. ERREFERENTZIAK

- AMEZCUA, J. A.; PICHARDO, M. C. "Diferencias de género en autoconcepto en sujetos adolescentes". In: *Anales de Psicología*, 16 (2), 2000; 207-214.
- ASCI, F. H.; ASCI, A.; ZORBA, E. "Cross-cultural validity and reliability of Physical Self-Perception Profile". In: *International Journal of Sport Psychology*, 30, 1999; 399-406.
- ATIENZA, F. L.; BALAGUER, I.; MORENO, T. *Validez factorial y relaciones entre las escalas del autoconcepto del SPPC – Self-Perception profile for Children– Harter (1985)*. Comunicación presentada a la VI Conferencia Internacional de Evaluación Psicológica. Formas y Contextos. Salamanca, 1998.
- BURNS, R. B. *El autoconcepto. Teoría, medición, desarrollo y comportamiento*. Bilbao: Ega, 1990.
- ESNAOLA, I. *Elaboración y validación del cuestionario Autokontzeptu Fisikoaren Itaunketa (AFI) de autoconcepto físico*. Leioa: UPV/EHU, 2005.
- . "Diferencias de sexo en el autoconcepto físico durante el ciclo vital". In: *Psicología Conductual*, 17 (2), 2009; 365-380.
- FOX, K. R.; CORBIN, C. B. "The Physical Self-Perception Profile: development and preliminary validation". In: *Journal of Sport and Exercise Psychologist*, 11, 1989; 408-430.

- GABELKO, N. H. *Age and gender differences in global, academic, social and athletic self-concepts in academically talented students*. Paper presented at the annual meeting of the American educational research association. Chicago, 1997.
- GARCÍA, F.; MUSITU, G. *Autoconcepto Forma 5. AF5*. Manual. Madrid: TEA, 2001.
- GRANLEESE, J.; JOSEPH, S. "Reliability of the Harter Self-Perception Profile for Children and predictors of global self-worth". In: *Journal of Genetic Psychology*, 155 (4), 1994; 487-492.
- HAGBORG, W. J. "Gender differences on Harter's Self-Perception Profile for Adolescents". In: *Journal of Social Behavior and Personality*, 8 (1), 1993; 141-148.
- HAGGER, M. S.; BIDDLE, S. J. H.; WANG, C. K. J. "Physical self-concept in adolescence: generalizability of a multidimensional, hierarchical model across gender and grade". In: *Educational and Psychological Measurement*, 65 (2), 2005; 297-322.
- HARTER, S. "The determinants and mediational role of global self-worth in children". In: EISENBERG, N. (Ed.). *Contemporary issues in developmental psychology* (pp. 219-242). New York: Wiley, 1987.
- . *Manual for the Self-Perception Profile for Adolescents*. Denver: University of Denver, 1988.
- . "Causes, correlates and the functional role of global self-worth: a life span perspective". In: KOLLIGAN, J.; STENBERG, R. (Eds.). *Perceptions of competence and incompetence across the life span* (43-70). New York: Springer-Verlag, 1989.
- . "Self and identity development". In: FELDMAN, S.; ELLIOT, G. (Eds.). *At the threshold: the developing adolescent* (352-387). Cambridge: Harvard University, 1990.
- HAYES, S. D.; CROCKER, P. R.; KOWALSKI, K. "Gender differences in physical self-perceptions, global self-esteem and physical activity: evaluation of physical self-perception profile model". In: *Journal of Sport Behaviour*, 22 (1), 1999; 1-14.
- KLOMSTEN, A. T.; SKAALVIK, E. M.; ESPNES, G. A. "Physical self-concept and sports: do gender differences still exist?" In: *Sex Roles*, 50 (1-2), 2004; 119-127.
- MARSH, H. W.; SONSTROEM, R. J. "Importance ratings and specific components of physical self-concept: relevance to predicting global components of self-concept and exercise". In: *Journal of Sport & Exercise Psychology*, 17, 1995; 84-104.
- MORENO, Y. *Propiedades psicométricas del Perfil de Autopercepción Física (PSPP)*. Tesis Doctoral. Valencia: Universidad de Valencia, 1997.
- NEWCOMB, A. F.; BUKOWSKI, W. M. "Social impact and social preference as determinants of children's peer group status". In: *Developmental Psychology*, 19 (6), 1983; 856-867.
- PASTOR, Y. *Estudio de la influencia del autoconcepto multidimensional sobre el estilo de vida saludable en la adolescencia media*. Tesis Doctoral. Valencia: Universidad de Valencia, 1998.
- ; BALAGUER, I.; BENAVIDES, G. "Influencia de los dominios del Autoconcepto en la autoestima de los adolescentes". In: *Revista de Psicología Social Aplicada*, 12 (3), 2002; 97-112.
- SONSTROEM, R. J.; SPELIOTIS, E. D.; FAVA, J. L. (1992). "Perceived Physical Competence in adults: an examination of the Physical Self-Perception Profile". In: *Journal of Sports & Exercise Psychology*, 14, 1992; 207-221.

- TRENT, L. M. Y.; RUSELL, G.; COONEY, G. (1994). "Assessment of self-concept in early adolescence". In: *Australian Journal of Psychology*, 46 (1), 1994; 21-28.
- VAN DEN BERGH, B. R. H.; MARCOEN, A. (1999). "Harter's self-perception profile: factor structure, reliability and convergent validity in a dutch speaking belgian sample of fourth, fifth and sixth graders". In: *Psychologica Belgica*, 39 (1), 1999; 29-47.
- YOUNG, J. F.; MROCZEK, D. K. "Predicting intraindividual self-concept trajectories during adolescence". In: *Journal of Adolescence*, 26, 2003; 586-600.